BEHIN-BEHINEKO XEDAPENAK

*Lehenengoa*

Euskaltegi publiko eta pribatu homologatuentzat 8.1. artikuloko a) atalean aipatutako betebeharrak bi urtez indargabe gelditzen dira Agindu hau indarrean jarriko den unetik hasita. Epe hori jarraian urtebeteko aldiez luzatu ahal izango da gehienez hiru urtetarako HABEren Zuzendari Orokorrak, Euskaltegi bakoitzeko gorabeherak kontutan harturik, emango duen Ebazpenez.

Epe hori eta lehengo paragrafoan aipatutako luzapenak igaroz gero, Euskaltegi guztiek bete beharko dituzte Agindu honetako 8. artikuluaren xedapenak.

*Bigarrena*

Agindu hau indarrean jarri eta hiru hilabeteren barruan HABEren Zuzendari Orokorraren Ebazpenez egingo da prestaketa frogetarako deialdi bat. Froga hauetara 11.1.a) artikuluan aipatzen diren baldintzak betetzeke 1984ko Martxoaren 29an helduei euskara irakasteko zentruren batean irakaskuntz lanetan ari diren irakasleak aurkeztu ahal izango dira, behin bakarrik egingo den deialdi honetako ezarriko diren beste baldintzak ere bete beharko dituztelarik. Froga hau gainditzeak ordezkatuko du Agindu honetako 11.1.a) artikuluaren eskakizuna.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean indarrean sartzen den Agindu hau, garatu eta aplikatzeko baimena ematen zaio HABEren Zuzendari Orokorrari.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

*Primera*

Los requisitos a que se refiere el apartado a) del artículo 8.1. para los euskaltegis públicos y privados homologados queda en suspenso por un período de dos años a partir de la entrada en vigor del presente Decreto. Dicha suspensión podrá ser ogada por períodos sucesivos de un año de duración hasta un máximo de tres más por Resolución del Director General del HABE para euskaltegis concretos atendiendo a las circunstancias del caso.

Una vez transcurrido el período de suspensión y en su caso las prórrogas sucesivas a las que se refiere el párrafo anterior, todos los euskaltegis deberán adecuarse a lo dispuesto en el artículo 8 de la presente Orden.

*Segunda*

El Director General del HABE dictará, en el plazo de la entrada en vigor de la presente Orden, una Resolución convocando pruebas de habilitación para los profesores que estando en activo a 29 de Marzo de 1984 no cumplan los requisitos exigidos en el artículo 11.1.a) de esta Orden. Dichos profesores deberán asimismo reunir cualquier otro requisito que se especifique en dicha convocatoria, que se realizará una vez.

DISPOSICION FINAL

Se autoriza al Director General de HABE para el desarrollo y aplicación de lo dispuesto en la presente Orden que entrará en vigor el mismo día del de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

## LAN-SAILA

**1252**

Ekainaren bosteko 156/1984 **DEKRETOA**, Koperatibei buruzko Otsailaren 11ko 1/1984 Legeko hauspenen sailkaketa eta zigorrak jartzeko bideak araupetuz.

Koperatibei buruzko Otsailaren 11ko 1/1982 Legeko Azken Erabakietatik Seigarrenak esku ematen dio Eusko Jaurlaritzari, Lan-Sailburuaren saloz, hauspenen zermugapenerako, zigortze-bideetarako eta horietarako goradeietarako beharrezko izan daitezen araupideak emateko.

Bere aldetik, aipaturiko Koperatibei buruzko Legeko 67/2 Atalak zera jartzen du: egin daitezen hauspenak, larria, ekonomiazko garrantzia, inori edo bazkideei ekarritako kaltea eta koperatibaren ekonomiazko ahalmena kontutan izanik zigortuko direla.

Horren ondorioz, eta esandako Azken Erabakietako Seigarrenak dakarren agindua beteaz Koperatibei buruzko Otsailaren 11ko 1/1982 Legea behar bezala egiteratu ahal izateko, Legeak dakartzan hauspenen nolakoa eta zenbatekoa araupetzea dagokio, eta bai zigorrak jartzeko berarizko arduralaritza-bideak ere.

## DEPARTAMENTO DE TRABAJO

**1252**

DECRETO 156/1984, de cinco de Junio, por el que se regula la calificación de las infracciones de la Ley 1/1982, de 11 de Febrero, sobre Cooperativas y el procedimiento de imposición de sanciones.

La Disposición Final Sexta de la Ley 1/1982, de 11 de Febrero, sobre Cooperativas, remite la regulación de las normas necesarias en relación con la calificación de las infracciones, procedimiento sancionador y recursos pertinentes, a las normas que dicte el Gobierno Vasco a propuesta del Consejero de Trabajo.

Por su parte, el artículo 67/2 de la citada Ley de Cooperativas establece que las infracciones serán sancionadas teniendo en cuenta la gravedad de las mismas, su importancia económica, perjuicios ocasionados a terceros o a los socios y la capacidad económica de la Cooperativa.

En consecuencia, y a los efectos de posibilitar la correcta operatividad de la Ley 1/1982, de 11 de Febrero, sobre Cooperativas, en cumplimiento del mandato contenido en la referenciada Disposición Final Sexta, procede regular la tipificación y cuantificación de las infracciones del contenido de la Ley, así como el procedimiento administrativo especial de imposición de sanciones.

Horiek horrela, Lan-Sailburuaren saloz, Koperatiben Artezte-Kontseiluaren iritzia entzunda, eta Jaurlaritza--Batzarrak mila bederatzirehun eta larogeita laugarreneko Ekainaren bostean egindako bilkuran aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT:

I ATALBURUA

**Hauspenak eta zigorrak**

*Lehenengo Atala*

Koperatiba-Baltzuek, Koperatibei buruzko Otsailaren 11ko 1/1982 Legeari darizkion eginbeharrekiko eta erabiltze eta egiteratze-arauekiko hauspen izan daitezen egintza eta huts egiteegatikako erantzun-beharra izango dute.

*2garren Atala*

Hauspen izan daitezen egintzak arinetan, larritan eta oso larritan zermugatuko dira.

*3garren Atala*

Honako hauek joko dira hauspen arintzat:

a) Artezte-Kontseilua Baltzu-Araudian egindutako aldikotasunez ez biltzea.

b) Koperatibei buruzko Otsailaren 11ko 1/1982 Legearen 45garren Atalak dion nahitaezko baltzu-agiripaperak lau hilabetetik gorako aldian behar bezala jarri gabe eta egunean--eguneangotu gabe eukitzea.

c) Koperatibaren baitan batzordeak, taldeak edo sailak egon, eta Baltzu osoaren kontaduritzaz gainera harien banakakoa ez eramatea.

*4garren Atala*

Honako hauek joko dira hauspen larritzat:

a) Baltzuaren izenean "Koperatiba-Baltzua" ("Sociedad Cooperativa") hitzak edo "Kop.-B" ("S. Coop.") laburpena ez sartzea, edo baltzuaren erantzukizun-moeta laburki bederen ez adieraztea.

b) Bazkideei eska ditzaten argipideak ukatzea edo Artezte--Kontseiluak Koperatibei buruzko Otsailaren 11ko 1/1982 Legearen 15garren Atalak araupetzen duen argipideak eman beharrari huts egitea.

c) Artezke-Kontseiluak bazkide bat horretarako jarrita dauden bideak egin gabe egoztea.

d) Biltzar Nagusian edo Artezte-Kontseiluan laguntza--bidezko bazkideen boto-zenbatekoa lan-bazkideenena baino haundiagoa izatea.

e) Ihardunik gabeko edo baliatzaile ez diren bazkideen botoak lan-bazkideen guztirako botoen herenetik gora izatea.

f) Gaindikin garbia ateratzeko egin beharreko kenketei buruzkoetan Koperatibei buruzko Otsailaren 11ko 1/1982 Legearen 26garren Atalak agintzen duenari ez atxikitzea.

g) Nahitaezko Emendio-Baltzan eta Hezkuntza eta Gizarte-Hazkunderako Baltzan Koperatibei buruzko Otsailaren 11ko 1/1982 Legearen 27garren Atalak esaten dituen Gaindikin Garbien gutxienezko ehunekoak ez sartzea.

h) Artezte-Kontseiluak Biltzar Nagusiari bilkurarako deia bere garaian eta legeak agintzen duenez ez egitea.

En su virtud, y a propuesta del Consejero Titular del Departamento de Trabajo, oído el Consejo Superior de Cooperativas, y previa deliberación del Consejo de Gobierno en su sesión de cinco de Junio de mil novecientos ochenta y cuatro,

DISPONGO:

CAPITULO I

**Faltas y sanciones**

*Artículo 1.º*

Las Sociedades Cooperativas serán sujetos responsables de las acciones y omisiones que entrañen incumplimiento de las obligaciones que deriven de la Ley 1/1982, de 11 de Febrero, sobre Cooperativas y las restantes normas de aplicación y desarrollo.

*Artículo 2.º*

Se calificarán los hechos constituidos de infracción como leves, graves o muy graves.

*Artículo 3.º*

Tendrán la consideración de faltas leves:

a) No haberse reunido el Consejo Rector con la periodicidad establecida en los Estatutos Sociales.

b) No llevar en orden y al día por un tiempo que exceda de cuatro meses la documentación social obligatoria que resulta del artículo 45 de la Ley 1/1982, de 11 de Febrero, sobre Cooperativas.

c) No llevar, existiendo juntas, grupos o secciones en el seno de una Cooperativa, contabilidad independiente, sin perjuicio de la general de la Sociedad.

*Artículo 4.º*

Tendrán la consideración de faltas graves:

a) No incluir en la denominación de la Sociedad las palabras "Sociedad Cooperativa" o su abreviatura "S. Coop." o no expresar, aunque sea en forma abreviada, la clase de responsabilidad de la misma.

b) Negar a los socios la información solicitada u omitir el Consejo Rector el deber de informar, tal como resulta regulado por el artículo 15 de la Ley 1/1982, de 11 de Febrero, sobre Cooperativas.

c) Acordar el Consejo Rector la expulsión de un socio sin observar el procedimiento establecido al respecto.

d) Exceder el número de votos de los socios colaboradores del tercio de los votos sociales en la Asamblea General o en el Consejo Rector.

e) Exceder el número de votos de los socios inactivos o no usuarios del treinta por ciento del total de los votos sociales.

f) No ajustarse a lo dispuesto en el artículo 26 de la Ley 1/1982, de 11 de Febrero, sobre Cooperativas, en cuanto a las deducciones necesarias para obtener los Excedentes Netos.

g) No destinar al Fondo de Reserva Obligatorio y al Fondo de Educación y Promoción Social los porcentajes mínimos de los Excedentes Netos señalados por el artículo 27 de la Ley 1/1982, de 11 de Febrero, sobre Cooperativas.

h) Convocar el Consejo Rector a la Asamblea General en el tiempo y con las formalidades legales.

i) Artezte-Kontseiluko kargudunak dagokionean ez aldatzea.

j) Artezte-Kontseiluak hiru kontu-artekari edo gehiago ez izendatu izana, Koperatibei buruzko Otsailaren 11ko 1/1982 Legearen 43/6 Atalak agintzen duenaren arauera izendapen horiek egitea nahiatezkoa izan dedinetan.

k) Kontu-artekariei Biltzar-Nagusiari ontzat eman ditzan arauz aurkeztu behar zaizkion kontaduritza-agiriak ez erakustea.

l) Legearen 45garren atalak esaten dituen nahiteazko baltzu-agiripaperak zortzi hilabetetik gorako aldian behar bezala jarri gabe eta egunean-eguneangotu gabe eukitzea.

m) Baltzuak Koperatibei buruzko Otsailaren 11ko 1/1982 Legearen 45garren Atalak esaten dituen kontaduritza-liburu ofizialak ez eramatea.

n) Merkataritzaren Araubildumak agintzen duen arauerako eta bere ihardunari egokitutako erazko kontaduritza ez eramatea.

ñ) Baltzuaren kontu-kitapena egiterakoan aginduta dauden betebeharrak ez betetzea.

o) Koperatiba deusezte-aldian dagoenean horren izenari "ondarkontu-garbiketaldian" hitzak ez gehitzea.

p) Lankidetzazko Koperatibetan, Lan-itunepeko langileen zenbatekoa, modu iraunkorrez, guztiko bazkide-zenbatekoaren ehuneko 10etik gorakoa izatea.

q) Koperatibak bere baltzu-domuaren zati bat erostea edo gaudimenetarako hartzea.

r) Baltzu-domurako diru-ekarketei indarreango dirusariari hiru punto gehituz ateratzen den dirusaria baino haundiagoa ordaintzea.

s) Koperatibaren Baltzu-Egoitza Euskadiko Koperatiben Erroldean erasotako tokiaz besteko batera, Ekainaren 5eko 161/1982 Dekretoaren 5garren Atalak agintzen duenez hori Errolde horren ardura duenari jakinarazi gabe aldatzea.

t) Baltzu-zatiak izen eta guztiko jabego-agirien bidez ez egiaztatzea.

*5garren Atala*

Honako hauek joko dira oso hauspen larritzat:

a) Bazkide baten Baltzu-domuaren partzuer-zatiaren balioa Baltzu-Domuaren herenetik gorakoa izatea edo, bigarren edo goragoko mailako Koperatibetan, ehuneko berrogeita hamarretik gorakoa.

b) Koperatibak, bazkide ez direnentzat berez eta besterik gabe baltzu-zati bilakatu daitezkeen zor-agiriak jaulkitzea.

c) Hezkuntza eta Gizarte-Hazkunderako Baltza Koperatibei buruzko Otsailaren 11ko 1/1982 Legearen 27/4 Atalak esaten dituenetarako ez erabiltzea.

d) Baltzuaren halabeharrezko dirubaltzak bazkideen artean banatzea edo azkengaindikin garbi bat egotea, Legearen 53garren Atalean ohartemandakoa hautsiz.

e) Koperatiba-itzulketak bazkideei horiek Baltzu-domurako egindako ekarketen heinean edo bazkide bakoitzak koperatiban egindako lan, zerbitzu edo ihardunaz bestelako zioegatik ematea.

f) Arauz Biltzar Nagusiaren erabakia beharrezko izan dezaten egintzak erabaki hori gabe egiteratzea.

i) No haber renovado los cargos del Consejo Rector cuando proceda.

j) No haber nombrado la Asamblea General tres o más Interventores de Cuentas, en el supuesto que tal nombramiento resulte obligatorio a tenor de lo dispuesto en el artículo 43/6 de la Ley 1/1982, de Febrero, sobre Cooperativas.

k) No presentar a los Interventores de cuentas los documentos contables que preceptivamente deban presentarse a la Asamblea General para su aprobación.

l) No llevar en orden ni al día por un tiempo que exceda de ocho meses la documentación social obligatoria que resulta del artículo 45 de la Ley.

m) No llevar la Sociedad los libros oficiales a que se refiere el artículo 45 de la Ley 1/1982, de 11 de Febrero, sobre Cooperativas.

n) No llevar una contabilidad ordenada y adecuada a su actividad con arreglo a lo dispuesto en el Código de Comercio.

ñ) No haberse observado en la liquidación de la Sociedad las formalidades previstas.

o) No añadir la Cooperativa a su nombre las palabras "en liquidación" cuando se encuentre en esa fase.

p) Exceder el número de trabajadores en contrato de trabajo por tiempo indefinido al diez por ciento del total de socios en las Cooperativas de Trabajo Asociado.

q) Adquirir la Cooperativa, a título oneroso, partes sociales de su propio Capital o aceptarlas a título de prenda.

r) Abonar un interés a las aportaciones al Capital Social superior al tipo de interés básico vigente, incrementado en tres puntos.

s) El traslado del Domicilio Social de la Cooperativa a lugar distinto del inscrito en el Registro de Cooperativas de Euskadi sin proceder a comunicar dicha circunstancia al encargado correspondiente del indicado Registro, tal como preceptúa el artículo 5 del Decreto 161/1982, de 26 de Julio.

t) No acreditar las partes sociales en títulos nominativos.

*Artículo 5.º*

Tendrán la consideración de faltas muy graves:

a) Exceder el valor de la participación de un socio en el Capital Social de un tercio de éste o, en las Cooperativas de segundo o ulterior grado, del cincuenta por ciento.

b) Emitir la Cooperativa obligaciones cuya convertibilidad en partes sociales sea automática para no socios.

c) No aplicar el Fondo de Educación y Promoción Social a los fines indicados en el artículo 27/4 de la Ley 1/1982, de 11 de Febrero, sobre Cooperativas.

d) Repartirse entre los socios los fondos sociales obligatorios, o el haber líquido resultante, vulnerando lo previsto en el artículo 53 de la Ley.

e) Acreditar a los socios el retorno cooperativo en proporción a las aportaciones de los mismos al Capital Social o hacerlo por causas distintas de las operaciones, servicios o actividad realizada por cada socio en la cooperativa.

f) Realizar los actos que requieran preceptivo acuerdo de la Asamblea General, sin contar con dicho acuerdo.

g) Artekaritzak, horietarako gaitasuna Artezte-Batzordeari eta ez beste inori dagokion eskubideak edo ahalmenak egiteratzea.

h) Nahitaezko baltzu-agiripaperak hamabi hilabetetik gorako aldi baten behar bezala jartzeke eta egunean-eguneangotu gabe eukitzea.

i) Koperatibak legez edo Araudiaren aginduz bazkide ezin izan dutenak bazkidetarako onartzea.

j) Ikuskaritza-lanari dagokion eragozpen-agiriaren bidez egiaztatutako trabak jartzea.

*6garren Atala*

Koperatibako Artezte-Kontseiluko eta Artezkaritzako kideek, Kontu-artekariek, Kontu-kitapengileek eta Idazkariek, Koperatibei buruzko Otsailaren 11ko 1/1982 Legearen Atalak jartzen dituen betebeharrak hautsi ditzaten egintza edo hutsegiteegatikako berenezko erantzunbeharra izango dute, eta bai heurei berenez egotzi dakizkiekeen gainontzeko erabiltze eta egiteratze-arauak nahiz araudi-bidezkoak hausteagatikakoa ere. Egozpena aurrean esandakoetatik nori egitea dagokion zehaztu ezina gertatu dedinean, Koperatibak izango du erantzunbeharra, lege-nortasundun denez.

*7garren Atala*

Dekreto honen 3garren, 4garren eta 5garren Ataletan arinetan, larritan eta oso larritan sailkatutako hauspenei, ekonomiazko bere garrantziaren, inori edo bazkideei ekarritako kalteen eta Koperatibaren ekonomiazko gaitasunaren eretzeango zigorrak jarriko zaizkie.

*8garren Atala*

Hauspen arinei, oharra egitezko zigorra edo 5.000 eta 25.000 peseten arteko isunak jarriko zaizkie.

Hauspen larriei, 25.001 eta 100.000 peseten arteko isunak jarriko zaizkie.

Oso hauspen larriei 100.001 eta 2.000.000 peseten arteko isunak jarriko zaizkie, Jaurlaritza-Batzarraren erabakiz 5.000.000 pesetaraino gehitu daitezkeela.

*9garren Atala*

Zigorrak oharpena egitezkoak eta gehienerako bost miloe pesetarainoko isunezkoak izango dira, batera erabilgarri izan daitezen berarizko legepideen bidez araupetutakoekin baterakoak izan daitezkeela.

Isunak, zigorraren larriaren arauera, honako hauek jarriko dituzte: 100.000 pesetarainokoak, Eusko Jaurlaritzako Lan-Sailaren Lurralde-Ordezkariak; 500.000 pesetarainokoak, Eusko Jaurlaritzako Lan-Sailburuordeak, eta 2.000.000 pesetarainokoak Eusko Jaurlaritzako Lan-Sailburuak.

Hauspen oso larriak edo larriak eta behin eta berrizkoak izan daitezenean, Jaurlaritza-Batzarrak, Lan-Sailburuaren saloz, 5.000.000 pesetarainoko isun bat jarri ahal izango du.

*10garren Atala*

Lehenengo aldiz, ageri-ageriko ezjakinean eta inorentzako kalterik gabe egindako hauspen arinek, jarri dedin epearen barruan zuzentzen ez badira dagokion hauspen-agiria egingo denaren oharra baino ez dute ekarriko.

g) Ejercer la Dirección facultades o poderes cuya competencia corresponde en exclusiva al Consejo Rector.

h) No llevar en orden y al día por un tiempo que exceda de doce meses la documentación social obligatoria.

i) Admitir la Cooperativa como socios a quienes no pudieran serlo por precepto legal o estatutario.

j) La obstrucción a la labor inspectora acreditada mediante la correspondiente acta de obstrucción.

*Artículo 6.º*

Los miembros del Consejo Rector y Dirección, Interventores de cuentas, Liquidaciones y Secretario, de la Entidad Cooperativa serán sujetos responsables de las acciones u omisiones que entrañen incumplimiento de las obligaciones establecidas en la Ley 1/1982, de 11 de Febrero, sobre Cooperativas, así como las restantes normas de aplicación y desarrollo o estatutarias que les sean personalmente imputables. En los supuestos en que no se pueda determinar la personal imputabilidad de los sujetos mencionados en el aparato anterior, será responsable la Entidad Cooperativa como tal persona jurídica.

*Artículo 7.º*

Las infracciones enumeradas en los artículos 3.º, 4.º y 5.º de este Decreto como leves, graves y muy graves se sancionarán en función de su importancia económica, perjuicios ocasionados a terceros o a los socios y la capacidad económica de la Cooperativa.

*Artículo 8.º*

Las faltas leves se sancionarán con apercibimiento o multas de 5.000 a 25.000 pesetas.

Las faltas graves se sancionarán con multas de 25.001 a 100.000 pesetas.

Las faltas muy graves se sancionarán con multas de 100.001 a 2.000.000 de pesetas, ampliables hasta 5.000.000 de pesetas mediante acuerdo de Consejo de Gobierno.

*Artículo 9.º*

Las sanciones serán de apercibimiento y multa hasta un máximo de cinco millones de pesetas, siendo compatibles con las que regulen legislaciones especiales que resulten simultáneamente de aplicación.

Las multas, de acuerdo con la gravedad de la sanción, se impondrán por el Delegado Territorial del Departamento de Trabajo del Gobierno Vasco, hasta 100.000 ptas.; por el Viceconsejero de Trabajo del Departamento de Trabajo del Gobierno Vasco hasta 500.000 ptas.; por el Consejero de Trabajo del Gobierno Vasco hasta 2.000.000 de ptas.

En caso de falta muy grave o de graves y reiteradas, el Consejo de Gobierno, a propuesta del Consejero de Trabajo, podrá imponer una multa de hasta 5.000.000 de pesetas.

*Artículo 10*

Las faltas leves cometidas por primera vez y con probada ignorancia o sin perjuicio de tercero, únicamente darán lugar al apercibimiento de que si no se corrigieren dentro del plazo que se señala se procederá a extender la correspondiente acta de infracción.

## II ATALBURUA

### Zigorketa-bideak

*11garren Atala*

Koperatibei buruzko Otsailaren 11ko 1/1982 Legearen ataletako arauak ez betetzeagatikako zigorrak jartzeko berarizko arduralaritza-bideak, Atalburu honetan ematen diren manuei atxikiko zaizkie.

*12garren Atala*

Diruzko zigorren ordainketa, Eusko Jaurlaritzako Diruzaingo Nagusiari zigortutako Erakundeak bere egoitza dueneko Kondaira-Lurraldeko Laneko Lurralde-Ordezkaritzako dirusarrera-kontuan sartuta egin beharko da.

*13garren Atala*

Iharduneango ikuskariak batara joanda, arduralaritza-zehaztapidetza baten ondorioz nahiz behar bezala egiaztatutako salapen baten bidez koperatibekiko legeen hauspen direnak gertatu izana egiaztatu dezaten guztietan, bidezko eritzitako hauspen-agiria edo agiriak egon ahal izango dituzte.

Honako hauetan egin ahal izango dute ikuskariek bere ikuskaritza-arakaketa bertara joan beharrik gabe:

a) Koperatiba-Baltzuei beharrezko xehapenak eman ditzatela eskatuz.

b) Bere ihardunaren zio izan daitezen gertakariak izan direla egiaztatu dezan arakaketa edo zehaztapidetzaz baliatuz.

*14garren Atala*

Hauspen-agiriek, orohar, honako xehapen hauek izan beharko dituzte barne:

a) Hauspena egin duen Erakundearen izena, egoitza eta iharduna, eta bai nahitaezko nahiz borondatezko ihardutze-sailetako kideen eta 6garren Atalean esandako norbanakoen izen eta bi deiturak ere, horiei berenezko erantzunbeharra eskatu ahal izatea gerta dedinetan.

b) Kalteak ekarri zaizkien bazkideen edo beste batzuen zenbatekoa, xehapen hori hauspenaren larria zermugatzeko baliagarri izan dedinean.

c) Hautsi den manua eta gertatutakoaren zernolakoak.

d) Egindako kaltearen balio-neurketa, zehaztapen hori egin ahal dedinetan.

*15garren Atala*

Ikuskaritza-lanari oztopo edo eragozpen nabarmenak jarri dakizkionean, trabak jartzeagatikako agiria egingo da.

Agirian, ikuskaritza-lanari trabak jartzezko egintza edo zernolakoen adierazpen zehatza egingo da. Horiei, hauspenagatikako agirientzat jarritako bideak eginaraziko zaizkie.

*16garren Atala*

1. Hauspenagatikako edo trabak jartzeagatikako agiriak horien errudun izan dedin edo izan daitezen Erakundeari, norbanakoari edo norbanakoei ezagutaraziko zaizkie, ikuskaritza bukatu dedin egunetik hasi eta hurrengo hamar lan-

## CAPITULO II

### Procedimiento sancionador

*Artículo 11*

El procedimiento administrativo especial de imposición de sanciones por incumplimiento de las normas articuladas por la Ley 1/1982, de 11 de Febrero, sobre Cooperativas, se ajustará a las disposiciones que se establecen en el presente capítulo.

*Artículo 12*

El pago de las sanciones pecuniarias deberá efectuarse abonando la multa impuesta en la Tesorería General del Gobierno Vasco, en la cuenta de ingresos de la Delegación Territorial de Trabajo correspondiente al Territorio Histórico del domicilio de la Entidad sancionada.

*Artículo 13*

Los inspectores actuantes, siempre que con ocasión de visita, resultado de expediente administrativo o en virtud de denuncia debidamente comprobada, constaten la existencia de hechos constitutivos de infracción de la legislación cooperativa, podrán extender el acta o actas que estimen procedentes.

Los inspectores podrán desempeñar su función fiscalizadora sin necesidad de visita:

a) Requiriendo de las Sociedades Cooperativas la aportación de los datos precisos.

b) Por comprobación o expediente administrativo que acredite la existencia de los hechos que motiven su actuación.

*Artículo 14*

Las actas de infracción, en general, deberán contener los siguientes requisitos:

a) Denominación, domicilio y actividad de la Entidad infractora, así como nombre y dos apellidos de los miembros de los órganos obligatorios o voluntarios y de las personas indicadas en el artículo 6.º en los supuestos en los que se pueda establecer responsabilidad personalmente imputable a los mismos.

b) El número de socios o terceros perjudicados, cuando tal requisito sirva para calificar la gravedad de la infracción.

c) Disposición infringida y circunstancias del caso.

d) Valoración económica del perjuicio producido en los supuestos en que sea posible tal determinación.

*Artículo 15*

Se practicarán actas de obstrucción cuando la labor inspectora sea impedida o dificultada notoriamente.

Se incluirá en el acta una detallada descripción de los hechos o circunstancias constitutivos de obstrucción a la labor inspectora. Su tramitación se ajustará al procedimiento establecido para las actas de infracción.

*Artículo 16*

1. Las actas de infracción y obstrucción se notificarán a la Entidad, sujeto o sujetos responsables en el plazo de diez días hábiles, contados a partir del término de la actuación inspectora, entendiéndose por ésta la de la fecha del acta, advirtién-

eguneko epearen barruan, ikuskaritzaren azken eguntzat agiriarena hartzen dela, adierazpena egin dakion egunaren biharamonetik hasi eta ondorengo hamabost lan-egunen barruan hauspena egin duen erakundearen egoitzako Kondaira-Lurraldeko Laneko Lurralde-Ordezkariaren aurrean aldezpen-idazkia aurkeztu dezakeenaren oharra eginaz.

2. Horretarako gai izan dedin ihardutze-sailak hogei laneguneko epearen barruan emango du bere erabakia, egin beharreko eritzitako argipideak egin ondoren.

3. Hartutako erabakiak Koperatibako legezko ordezkariei jakinaraziko zaizkie, eraz, dagokion jazarpen-eskubidea ezagutaraziz, zein agintariren aurrean egitea dagokion eta Arduralaritzabide-Legeak dionaren arauera horretarako duen epea adieraziz.

4. Jazarpena egin ahal izateko, Laneko dagokion Lurralde-Ordezkaritzako dirusarrera-kontuan jarritako zigorra adineko gaudimena uztea uztea ezinbesteko baldintza izango da, jazarpen-idazkiari horretzazko gordairu-agiria erantziz.

5. Jazarpena garaiz eta behar denez ez sartu izana gertatutakoan, doakionak zigorra jazarpena egiteko duen epe beraren barruan ordaindu beharko du; bestela agintaritza-aginduzko hertsapen-bideak egingo dira, Jaurlaritzaren Jorrailaren 19ko 99/1982 Dekretoak jartzen dituen bideen arauera.

6. Ihardun duen ikuskariak egindako zigor-saloak, bere zenbatekoa dela eta, Laneko Lurralde-Ordezkarien ahalmena gainditzen badu, horiek erabakirik eman ez, eta egindako agirisorta Eusko Jaurlaritzako Lan-Sailburuordeari edo Sailburuari bidaliko dio.

7. Emandako erabakiaren aldaki bat ihardun duen Ikuskariari bidaliko zaio, ezagutu dezan.

ALDI BATERAKO ERABAKIA

Dekreto honek araupetzen duen ikuskaritza Lan-Ikuskaritzaren bidez egingo da, Koperatibei buruzko Otsailaren 11ko 1/1982 Legearen Azken erabakietako Bosgarrena araudi-bidez egiteratu dedinerarte.

AZKEN ERABAKIAK

*Lehenengoa.*—Eusko Jaurlaritzako Lan-Sailburuari ematen zaio Dekreto hau egiteratzeko beharrezko izan daitezen manuak emateko eskua.

*Bigarrena.*—Dekreto hau Koperatibei buruzko Otsailaren 11ko 1/1982 Legearen erabiltze-eremuaren barruko Koperatiba-Baltzuekin erabiliko da.

*Hirugarrena.*—Dekreto hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dedin egunean bertan jarriko da indarrean.

Gasteizen, mila bederatzirehun eta larogeita laugarreneko Ekainak bost.

Lehendakaria,
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

Lan-Sailburua,
XABIER CAÑO MORENO.

dose que podrán formular escrito de descargo, en el plazo de quince días hábiles contados desde el siguiente a su notificación, ante el Delegado Territorial de Trabajo correspondiente al Territorio Histórico del domicilio de la entidad infractora.

2. El órgano competente, previas las diligencias que estime necesario practicar, dictará resolución en el plazo de veinte días hábiles.

3. Las resoluciones dictadas serán notificadas en forma al representante legal de la Cooperativa, a quien se advertirá del derecho de recurso que le corresponda, con expresión de la autoridad ante quien corresponda interponerlo y el plazo de su interposición según las normas que articula la Ley de Procedimiento Administrativo.

4. Será requisito indispensable para recurrir, la constitución de depósito previo del importe de la sanción impuesta, en la cuenta de ingresos de la Delegación Territorial de Trabajo correspondiente, uniendo el correspondiente resguardo al escrito de recurso.

5. En caso de no ser entablado el recurso en tiempo y forma, el interesado tendrá que abonar la sanción dentro de un plazo igual al disponible para recurrir; en otro caso se procederá por la vía ejecutiva de apremio, siguiendo el procedimiento establecido en el Decreto 99/1982, de 19 de Abril, del Gobierno.

6. Si la propuesta de sanción formulada por la inspección actuante, por razón de su cuantía, excede de la competencia de los Delegados Territoriales de Trabajo, se abstendrán de resolver, elevando las actuaciones al Viceconsejero de Trabajo o al Consejero Titular del Departamento de Trabajo del Gobierno Vasco.

7. Un ejemplar de la resolución dictada se remitirá al Inspector Actuante, para su conocimiento.

DISPOSICION TRANSITORIA

La función inspectora regulada en el presente Decreto será ejercida a través de la Inspección de Trabajo hasta que se produzca el desarrollo reglamentario de la Disposición Final Quinta de la Ley 1/1982, de 11 de Febrero, sobre Cooperativas.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*—Se faculta al Consejero Titular del Departamento de Trabajo del Gobierno Vasco para adoptar las disposiciones necesarias para el desarrollo del presente Decreto.

*Segunda.*—El presente Decreto se aplicará a las Sociedades Cooperativas incluidas en el ámbito de aplicación de la Ley 1/1982, de 11 de Febrero, sobre Cooperativas.

*Tercera.*—El presente Decreto entrará en vigor el día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a cinco de Junio de mil novecientos ochenta y cuatro.

El Presidente,
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

El Consejero de Trabajo,
JAVIER CAÑO MORENO.